

Gabon gaua

Juan Luis Zabala

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1989



Zumaiko Udala

*enkarra
txanpau*



Gabon gaua

Juan Luis Zabala

Julene Azpeitia 2. ipuin lehiaketa

1989

2. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Juan Luis Zabala (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Pentsatzen hasiz gero, gure bizimodu hau xeblebre samarra ere bada horratik! Eskerrak, bai, gutxitan hasten garela pentsatzeko lan horretan, horretarako astirik edo gogorik gabe bizi garelako. Nik gaur eragin dizkiot hainbat jira-bira aspaldian geldi antzean neukan buruari. Gabon gaua da gaur, izan ere, mundu guztiko haur txiki asko eta askoren pozgarri, guztiena ez bada ere, gaurko mundu honetan ezinezkoak baitira guztientzako pozgarriak. Bakar-bakarrik afaldu dut nik, aparteko jakirik gabe, turroirik gabe, txanpainarik gabe, eta ez naiz hala ere gaziki sentitu. oroimen urrun tristea ekarri dit gogora gaurko egunak, bere triste horretan ere oso-oso gustukoa dudana. Abenduaren hogeita laua izandako beste gau ilun urruna da gogoratu dudana, bihotza samurtuz eta malkoak begiei kilima egitera deituz, masailean behera amiltzera ausartu ez badira ere.

Urte asko dira, ez du axola handirik zenbat zehazten hasteak; hamahiru urte nituen orduan, gabon gau ilun urrun hartan. Bost hilabete ziren istripu ergel gaizto batek umezurtz utzi ninduenetik, aita-amarik gabe eta arrebarik gabe, goian zerua, behean lurra eta ni bakar-bakarrik munduan.

Osaba Tilme-renera joan nintzen orduan bisitatzera. Tira, osabaren etxera eta osabaren kamioira esan beharko nuke berez, zehatza izatez gerotan. Osaba Tilme kamioilari mutilzahar egoskorra zen, huraxe ba egoskorra inon egoskorrik izatekotan, alajaina! Eta laster askorik pentsatu zuen hark nirekin zer egin: eskola utzi beharko nuen eta berarekin eramango ninduen lanera, egunak eta are aste osoak ere eginez etxetik kanpo. Bidaia luzeak egiten genituen biok, lverst-etik oso urrun iritsiz, Sirtemon-era, Lakein-era, Sulmenif-Damus-era, Zaringate-ra... Osaba Tilmeren kamioia oso handia zen, eta dotorea, atoiduna, zilegitzat ameti daitekeen neurririk luzeenari justu-justu egokitzen zitzaion atoi luze, handi eta egokia zuen edozer gauza garraiatzeko. Aurreko traktorea ere handia zuen, atzealdean bi lagunek lasai lo egiteko lain leku zuen kabina eta guzti. Traktore haren goieratik, haizetakotik zehar behera begira, ederki ikusten nuen nik nola jaten zituen kilometro luze etengabeak gure kamioi ezin dotoreagoak.

Baina orain hain era nostalgikoan deskribatzen dudan kamioi handi hura ez zitzaidan gustatzen orduan. Ez nuen orduan gaur azken erraietaraino sartua dudan errepidearekiko lilurarik sentitzen. Ume koxkor etxezale negarti samarra nintzen ni orduan, osaba Tilmeren menpean pozik eta eroso inola ere ezin

sentitu zena. Hark bere adiskide egin nahi ninduen, bere mundua erakutsi eta eskaini nahi zidan, bere mundu zakar gordina, baina nigan ezin izan zuen inoiz berak nahi izandako ikasle trebea ikusi. Animatu beharrean uzkurto erazi egiten ninduten haren oihu bortitzek, barregura baino areago izua sentiarazten zidaten haren txiste gordin basatiek, mugarik ezagutzen ez zuten haren birao zakar iraingarriek. Gogortu eta gizondu beharrean beldurto eta umetu egiten ninduten hark bizimoduaren inguruan emandako eritziek eta aholkuek. Eta hark igartzen zion guzti horri, jakina, antzematen zuen nigan ikasle kaxkarra zuela. Errieta egiten zidan batzuetan, niri errieta egitea alferrik zela esan arren behin eta berriz, eta nazkatuta nuela esaten zidan, umezurztegira bidaliko ninduela behingoz ernatu eta bizimodua zer zen ikasten ez banuen. Nik orduan beldur ikaragarria hartzen nion bizimodua zer zen ikasteari.

Bidaia luzeetan lagun egiteaz gain, kontuak eta paperak zuzentzen laguntzen nion, baita kamioia kargatzen eta deskargatzen ere, eta tarteka bestelako mandatuak ere egiten nizkion, baina urduritu egiten nintzen beti lanean, larritu, osaba begira nuela pentsatuta, eta azkenean beti egiten nuen nahigabeko okerren bat. Errietan hasten zitzaidan orduan, ezertarako ez nuela balio esanez, ez nuela sekula ikasiko, ume mukizu eta negartia izango nintzela betirako. Are urduriago eta larriago sentiarazten ninduen bere errietarekin.

Gero adiskidetu egiten zitzaidan, ezer esan gabe, barkamenik inoiz ere eskatu gabe, berriz ere bere txiste gordinak kontatzeko, ordu luzetako bidean niri beldurgarriak iruditzen zitzaizkidan sermoi etengabetan, agintarien aurka, apezten aurka, familiaren aurka, emakumeen aurka ere, hitz gogorak eta birao zakarrak hitzetik hortzera. "Putaseme ugari bazterretan", gustatzen zitzaion esatea irribarre lodia eginez, ondoren "eta neu handiena alajaina!" erantsi eta barre zoroak egiten hasteko.

Bideetako putetxe guztiak ezagutzen zituen, eta ez zuen astebete osorik egingo haletako batean gelditu gabe. Lehenengo egunean bararekin eraman ninduen barra amerikar batera, trago bat hartzera. Bi neska gazte inguratu zitzaizkigun, izterrak agerian zituztela, titi handiak soinetatik kanpora irten beharrean, eta galderak egiten hasi ahots samurrez, ea nondik nora gindoazen eta horrelakoak. Nik ospa egin nuen azkar askorik kamioiaren kabinara. Osaba pare bat ordu barru etorri zen, mozkortuta. Niri errieta pixka bat egin ondoren, berehalaxe loak hartu eta zurrungaka hasi zen. Harrez gero, ondoren, beti kabinan geratzen nintzen putetxe batera inguratzen ginenean, nahiz eta osabak beti esaten zidan barrura sartu, pixka bat edan eta tigreme haletako batekin larrua jotzen ikasteko, banuela horretarako ordua ere eta. Azkenean, etsita, seguru asko marikoi mengel nazkagarria besterik ez nintzela izango esaten zidan zakarki eta putetxe barrura joaten zen.

Bost hilabete egin nituen osabaren menpeko infernu hartan, neure burua zomorrorik eskasaren pareraino jaitsita sentituz, bizitzarako ezgauza ote nintzeneko zalantza itogarriaren pean, buru ezertarako ere ezin altxatuta.

Abenduaren hogeita hiruan oso berandura arte agin zuen txofer osaba Tilmek. Ferktel-eraino iritsi ginen gaueko ordu biak inguruan edo, eta artean ere aurrera segitu zuen osabak ordu erdi inguruko bidean aurrera Jakin-Tamel-eko putetxera iritsi nahian. Hara iritsi ginenean sekulako errieta egin zidan osabak putetxera lagundu nahi ez niolako. Besotik tiraka hasi zitzaidan baina nik gogor eutsi nion, izuak jota nengoen eta. Negarrez hasi nintzen, oihuka, ez nuela joan nahi eta ez nuela joan nahi, eta osabak bi zaplada jo eta hantxe utzi ninduen

marikoi nazkagarria nintzela esanda. Negarrez segitu nuen, putetxeko atarira begira. Han ere Gabonak ziren. Izei handi bat zegoen koloretako zinta eta bolatxo elektrikoekin apainduta, goitik beheraino, batzuk itzalitakoan besteak piztu egiten zirela. Izeiaren goiko puntan izar distiratsu argi ororen gainetik. Pentsatzen hasiz gero gure mundu hau xeblebre askoa dela esan bide nuen neure artean orduan ere, hamaika ikusteko jaiok garelara eta, hamaika ikusteko jaiok garenaz, bai horixe!

Jakina, aurreko urteko Gabonak etorri zitzaizkidan gogora, gurasoekin eta arrebarekin bizi izandako etxe giro epel hura, goxotasun lasaigarri ezti hura, betirako galdua zirudiena... Ordu erdi bateko negar saioa egiteko ez nengoela aitzakia faltan, alegia.

Ordu erdi inguruko negar mikatzaren ondoren, ordea, ideia bat etorri zitzaidan burura, neurekin gogor eutsi eta azkenera arte neurekin gordez gero irribarrea itzuli beharko zidan ideia: ihes egitea: ihes egin osabari, iritsi nola edo hala tren geltokirik hurbileneraino eta lverstera heldu gabon gaueko bederatziak baino lehen; han Joxmirenera joan nintekeen, nire adiskiderik minenaren etxera, dena azaldu eta bere familiaren goxotasunean afaldu, leku bat gehiago egingo zidatelako itxaropena banuen eta. Neure esku zegoen aukera. Ausardia pittin bat behar nuen eta betiere urrera egiteko kemena. Hamazortzi ordu barru Joxmiren etxeko goxotasuna dastatu ahal izango nuen, hamazortzi ordutan erne eta arin ibiltzea zen guztia, ahalegin guztiak egitea inoiz ere etsi gabe, ez nuen besterik ezer ere behar.

Osabak dirua gordetzeko zuen kaxatik diru pixka bat hartu, ez asko, neure arropak eta trasteak poltsan bildu, kamioiko kabinatik jaitsi eta, osabari ohar txiki bat ere utzi gabe, auto-stop egiten hasi nintzen Ferkstel aldera. Ez zebilen kotxe asko errepidean gaueko ordu horietan baina hogeitun minuturen buruan kotxe handi eta dotore baten barruan nindoan Ferkstelerantz, kotxe berogailuak berotuta eta kotxe barrua girotzen zuten Gabonetako apaingarriei begira: zintak, bolatxo distiratsuak, izartxoak, "Zorionak" zioen karteltxo apaina... Etxekoandre zintzo eta jatorra zen Ferkstelera eraman ninduen; gaueko hotzetan auto-stop egiten ari zen mutil koxkorraz errukitzeko adina bihotz izan zuen behintzat hark. Hamahiru urteko mutil koxkorra halako ordutan auto-stop egiten izatea harritzeko kontua zenez, neure burua zurrizko gezurra asmatu beharrean izan nintzen. Ferksteldarra nintzela eta etxetik ihes egin ondoren, damututa, etxeratu egin nahi nuela esan nion emakumeari. Ondo zegoela esan zidan hark orduan, ondo egiten nuela etxera itzultzea, gurasoek poz handia hartuko zutela eta. Zirrara gozo eta epel baten oroipena gordetzen dut une hartatik, zirrara gozo eta epela, bai, kotxe hura etxea eta emakume hura ama ez izan arren ere gabon giro gozoan sentiarazi baininduten ordu erdi inguruko bidaia labur hartan.

Ferkstelgo geltokian trenen ordutegiei begira hasi nintzen. Goizeko zazpi t'erdia inguruan irteten zen Bildenbul-erako lehen trena, arratsaldeko bost t'erdia edo seiak inguruan irteteko. Tren hura hartu behar nuen lehendabizi; gero, Bildenbuletik lverstera, izango zen tren edo autobusen bat niretzat, gaueko bederatziarako Joxmiren etxean izaten lagunduko zidana. Ez zegoen gaizki baina artean ere lau bat ordu falta ziren trena irteteko eta benetan hotz zegoen Ferkstel ezezagun hartako geltokian. Poliziak zebiltzan inguruetan eta ez nintzen lo-zakua atera eta haren barruan sartzen ausartu. Ferkstelgo kaleetatik paseo bat ematera abiatu nintzen, ia lau orduko paseoa noraezean, hotzak eta logurak guztiz jota. Zutik iraun behar nuen, ordea, iritsi egin behar nuen

Joxmiren etxera, gabon gaua bere etxeko giro goxoan ospatzeko, epel-epel adiskide baten ondoan, familia abegikor baten altzoan.

Ferktelgo gauean ere prostitutak ikusi nituen kale ertzetan zutik nire osabaren antzeko bezeroen zain, hotzari ahal bezala aurre egin eta hala ere haragi puskaren bat ageri samarrean utzita. Ikusi nindutenean deika hasi zitzaizkidan, giro epelera eramango nindutela esanez, ondo tratatuko nindutela, ez zidatela minik egingo. Ihes egin nuen handik, baina bihotza taupada larrietan nuela, osabarekin putetxean izandakoan ez bezala emakume haiekin geratzeko gogo bortitz batek heldu baitzidan ezustean, neure pauso urduriak geldiarazi nahian. Aurrera segitu nuen hala ere harik eta kale bakarti batean orma baten kontra bermatu eta negarrez hasi nintzen arte. Laster lasaitu nintzen hala ere. Lasaitu egin behar nuen, bai, erne egon beharra nuen, indarrik eta kemenik galdu gabe, gabon gaua behar bezala ospatzeko helburua erdietsiko banuen. Ezin nuen etsi. Geltokira iritsi eta trenaren zain geratu nintzen, urduri artean ere, prostituten dei gozoak burutik ezin kenduta.

Ez dakit nola, ez dakit zergatik, baina kontua da okerreko trenean sartu nintzela oharkabean. Beharbada lehen trenbideko bigarren nasan hartu beharrean bigarren trenbideko lehenengo nasan hartu nuen trena edo horrelakoren bat. Izan ere, galduta nenbilen, toki erabat ezezagunean, logurak jota eta urduri geltoki arrotz hartako mugimendu etengabearen erdian. Beraz, Senbil-erako trenean sartu nintzen Bildenbulerakoa zelakoan, eta ziur sartu bide nintzen neure ustetan, ez bainion inori ea tren hura Bildenbulera ote zihuan galdetu ere egin. Artean arrotzak zitzaizkidan paraje urrun haietan ez nuen susmo txarrik izan trena martxan jarri zenean ere. Loak hartu ninduen berehala, jota bainengoen, jakina.

Hamar t'erdiak inguruan esnatu ninduen treneko begiratzaileak. Txartela erakutsi nionean larritu egin zen, haserretzen hasi ere bai, baina laster baretu zen, nire egoera tristeaz urrikaldurik. Gabonak baitziren, izan ere. Xapmen-era arte ez zen ordea gelditzen tren hura; Xapmen-era arte, beraz, ezin genuen ezer ere egin oker hura zuzentzeko. Begiratzaileak tren ordutegiak begiratu zituen, lversteraino lehenbailehen iritsi ahal izateko hartu beharko nituen trenak zein ote ziren jakiteko. Tristaturik esan zidan gizon zintzo hark ezin izango nuela goizeko lauak arte iritsi Bildenbulera, ezin izango nuela gabon gaua etxe giroan pasatu, alegia.

Tristura handi baten zama astuna erori zitzaidan gainera. Betirako bakardade erabatekoan bizitzera kondenaturik sentitu nintzen. Galduta nengoen munduan, ez neukan ezer, ez neukan inor, ez nintzen ezer ere egiteko gauza, hutsik hutsena nintzen. Neurea zen gainera errua, neurea ez besterena, eta ez nintzen inoiz ezer egitera, ezer izatera iritsiko, hala sentitzen nuen nik orduan behintzat. Hala ere ez nuen negarrik egin.

Negarrik egin gabe, etsipenaren amildegiko ertzari gogor eutsita, ezerezaren ezerezean kontsolamendurik hutsenari lotuta, ezertan pentsatu gabe, neuregandik ere irtenda jaitsi nintzen trenetik Xapmeneko geltokian, han berriz ere Ferktelerraino itzuliko ninduen lehen trenaren zain gelditzeko. Geltokiko tabernan kafesnea hartu nuen, bi opilekin.

Lorik ez hartzen saiatu arren ere, tartekako kuluxkak eginez egin nuen Ferktelerrainoko bidea, lokamuts zantar laburretan. Dena dela, trena Ferktelgo geltokira iritsi zenean esnai nintzen behintzat eta gaitzerdi.

Jateko gogo handirik ez izan arren, Ferktelgo geltokiko tabernan otamen bat jan nuen, nire urdail errukarriarentzat beharrezkoa izango zela eta. Han zegoen jendeari bekaitzez erreparatzen nion otamena jan bitartean. Jende guzti hark nor bere etxean afalduko zuen goxo-goxo aparteko gau paregabe hartan, nik gaua trenean pasatzen nuen bitartean, etxerik gabe eta bakar-bakarrik. Bere lanak zituen negarrari eusten segitzeak.

Azkenik, Bildenbulerako trenean sartu nintzen, arratsaldeko bost t'erdia inguruan, tren hura Bildenbulera zihoala ongi ziurtatu ondoren. Trena martxan jarri zenean, aulkian eseri eta begiak itxi nituen. Hamar ordu inguru tren hartan, hantxe egotea beste lanik gabe, eta Bildenbuleren izango nintzen, handik lversterako bidea egin ondoren, eguberri egunaren goizaldean, Joxmiren etxean izateko; lur jota, lotsagarri, ezdeus agertuko nintzen baina han lagun bat nuen sikiera. Ez zitzaidan erraza egin erabateko etsipenari aurre egitea; horretarako, egun hartan bizitzen ari nintzena neure buruari abentura baten moduan aurkezten saiatu nintzen. Ezin sinestarazi nion abentura horren amaierako unea garaipenezkoa izango zenik, berandu iritsi behar bainuen nahitaez, alferrik baitziren ahaleginak oro, gabon gaua etxe giro epelean igarotzea ezinezkoa baitzitzaidan jada. Min handia ematen zidan horrek baina aurrera segitu behar nuen nola edo hala. Huts egin eta berandutu arren ere, kontua ausartu izatea zen, derrota eta guzti ere, abentura handia zen bizitzen ari nintzena. Horixe zen erabateko etsipena gainditu eta urrera segitzeko indarrak biltzeko pentsatu behar nuena.

Horrelakoetan pentsatzen, loak hatu ninduen berriz ere arratsaldeko zazpiak ingurura arte. Esnatu nintzenean bagoia betetzen zuen jendeari erreparatzen hasi nintzen. Jende askotxo zegoen eta gabon jaiei buruz mintzo ziren gehienak, oporrei buruz, telebistako saio bereziei buruz eta baita gabon gaueko afariari buruz ere. Zenbaitek opari paketeak edo kaxak zeramatzaten eta botilak zirela antzematen zitzairen horietako askori. Geltoki guztietan gauza bera, batzuk jaitsi eta besteak igo. Neu, berriz, trenean segitzera kondnaturik, gabon gauaren goxotasunaren aztarnarik gabe, tristura erraldoi baten menpe.

Gaueko bederatziak edo bederatzi t'erdia aldean, bagoia ia hutsik geratu zen bat batean. Bost lagun geratu ginen bakarrik, lau lagun bakarrik beraz nirekin batera: nire aurreko aulkian eserita arropa zarpail samarrez jantzitako gizona, aldameneko leihatilatik zehar kanpora begira; atso zahar samar ilezuria, bestaldeko leihatilaren ondoan; atzeko aukietan bi gizon gazte beltz lotan.

Aurreko aukiko gizonak ea ez al nuen jaitsi behar galdetu zidan, ez al nuen nik etxerik gabon gaueko afaria epel eta goxo egiteko. Ezetz esan nion, okerreko trena hartu eta berandutu egin zitzaidala. Elkarrekin hizketan hasi eta, pausoz pauso, neure egoera azaldu nion, gezurrik asmatu gabe. Errukitu egin zitzaidan hasieran, baina ez kezkatzeko esan zidan gero, begiratzeko lasai eta tristatu gabe trenbide ondoko etxe guztien leihoetako argiei eta pentsatzeko trenean gindoazenon aurpegia ederra zela, paregabea benetan. Bestaldeko atsoa leiho gaineko apaletik poltsa jaitsi, poltsatik ahoko soinua atera eta doinu triste bat jotzen hasi zen. "Nik ez nitek bagoi hau aldatuko etxe horietako baten goxotasunaren truke", esan zidan gizonak orduan. "Ezta pentsatu ere. Etxean goxo-goxo afaltzen ari direnek ez zekitek gabon gaua zer den, ezta hurrik eman ere. Gabon gaua zer den hemen ikasten duk, txikito, etxetik kanpo, eta hementxe duk beste inon baino liluragarriagoa".

Aldameneko atsoari begiratzeko adierazi zidan keinu batez, irribarre egiten zuen bitartean. Atsoak begiratu egin zigun, ahoko soinua jotzeri utzi gabe, doinu triste hari lotuta. Doinua amaitu zuenean txaloak jo zizkion gizonak eta atsoak esker oneko irribarre apala egin zuen.

Orduan gizonak goiko apaletik poltsa bat jaitsi eta bertatik gazta bat, ogi puska handia, ardo botila eta edalontzi bat atera zituen. Atsoari guregana hurbildu eta gazta jan eta ardoa edateko esan zion. Atsoak ezetz adierazi zuen eskuekin, aulkitik mugitu gabe eta hitzik esan gabe horretarako ere; ez dut uste hitz bat bera ere aditu nionik atsoari gau osoan. Ondoren niri luzatu zidan gizonak gonbitea eta nik ez nion ezetik esan. Bion artean jan genuen gazta puska hura eta bion artean hustu ardo botila, nik laurdena baino edan ez banuen ere.

Eta hizketan segitu zuen gizonak jaten genuen bitartean, eta hizketan segitu zuen gizonak gero ere, batetik besterako bizitza bakartiaren goraipamenak eginez, tristuraren gorazarreak, derrotaren laudorioak; tarteka isildu egiten zen atso zaharrak ahoko soinuarekin doinu triste berri bati ekiten zionean, ekitaldi hark hitzaldiaren mezua bermatu eta indartuko bailuen. Gizartea gaiztoa dela esaten zidan gizonak, familia itxuraz eroso eta gozoa dirudien kartzela ankerra dela, askatasunak bakardadea derrigorrezkoa duela, bakardade askean senti daitekeela bakarrik norberaren izaera munduaren aurkako kolpean eta sentimendu hori dela bizitzea, ez besterik ezer ere; munduaren aurrean bakarrik dagoela gizakia, mugarik gabe, eta mugarik gabe bizi behar duela bizitze hori bizi-bizian sentituko badu; gabon gauean etxe giro gozoan afaltzen duenak ez dakiela bizitza zer den, ez diola bizitzari antzik txikiena ere ematen. Horrelako kontuak esaten zizkidan gizonak, horrela laburbilduko nuke haren mezua. Baliteke, hala ere, gizonak esandakoa neure erara gogoratzea neuk ere orain dagoeneko, haren hitzaldiaren haria ahazturik neuk ezarri izatea neure haria hitzaldiaren oroipenari.

Bizitzen ari nintzena benetan ezin sinistuta egin nuen bidaia osoa; horregatik bide dut oraindik gogoan hain tinko iltzatua ordu haien oroipena, hainbeste urte pasa eta gero ere. Amets bitxi batetik esnatzearen parekoa izan zen Bildenbuleko geltokian jaisteko unea, gaueko lauak jota zirela jada. Gizonak, atsoak eta bi beltz lotiek aurrera jarraitu zuten beren bidaia. Trenetik inoiz ere jaitsi gabe segitu behar zutelako irudipenak hotzikarak eragin zizkidan.

Hotzaren eta loguraren aurkako bi ordu t'erdiko borroka berria izan nuen Bildenbulen, goizeko sei t'erdietan irteten zen Iversterako autobusaren zain. Eta goizegi iritsi nintzen Iverstera hala ere, goizek zortzi t'erdietan, artean ere jende guztia lotan zegoela bezperako festa giroaren ondorengo lasaitasun ez-tian. Joxmiren etxeokak ohetik ateratzerik nahi ez nuenez, par bat ordu egin nituen kaleetan bueltaka, eta hotzaren eta loguraren aurkako azken saio horren ondoren Joxmiren etxeok atearen txirrina jotzen ari nintzen azkenik.

Gabon gau ilun urrun hartan zehar atsekabe handia izan nuen ez nintzela garaiz iristen eta, ez nuela etxe giroko gabon gaurik igarotzen eta, gau magiko hartako goxotasunetik aparteko jende multzo gris tristearen partaide nintzela eta. Baina gaur oso oroipen kuttuna gordetzen dut, etxe giroko ezein gabon gaurik egundo eskaini ez didan bezalakoa, dudarik gabe. Ez dut agian hura baino gau magikoagorik inoiz bizi izan, ez dut uste. Ez gaur egungo ikuspegitik begiratuta behintzat.

Eta, pentsatzen hasiz gero, gau haren antz handiagoa izan du nire bizimoduak etxe giroko gabon gau epelarena baino. Orain ni osaba Tilmeren antzera batetik bestera dabilen kamioilaria naiz, putetxetik putetxera geldiuneak eginez. Urteen iragateak horixe bihurtu baitu du mutil koxkor tentel antzeko hura, bizimodua zer den ondo ikasi eta gero.

Egokiagoa litzateke akaso gabon gaueko etxe giro epelean gau ilun urrun hartako oroipena seme-alaba zorionsuei kontatu ahal izatea baina nirekin ezinezkoak dira kontu horiek. Nire inguruan ez da gozotasunik.

Nik baditut, izango ditut, bai, seme-alabak hor zehar, mundu zabalean, baina nik ez ditut ezagutzen. Bizitzak gogor eraso nauenean neuk are gogorrago erantzun nahi izan diot beti. Aitortu behar, hala ere, bizitzak kolpe horiei itzuri egiten diela beti, eta hurkoa izaten dela azkenean kolpe horiek jasotzen eta pairatzen dituen, hurkorik hurbilena betiere, noski, minik handiena hartzeko moduan dagoena. Gaizki iruditzeke moduko jokaerak izan ditut maiz, gaizki portatu naiz, bai, baina ez dut inoiz jokaera horiek eragotziko lizkidaketen arauak hausteko benetako oztoporik aurkitu, ez da izan nire gehiegizko erreakzioa geldiarazteko mugarik. Ez al gaude bada munduan? Bada hartu mundua eta ibili, gertatzen dena gertatzen dela, bazterra jo arte. Orduan laguntza eskatu, osatzen saiatu eta aurrera berriro indarrak berriro orduko. Ez al da ba hala? Eta zergatik ez? Konparazio baterako, kotxe txofer batek ezkerreko aldetik badarama kotxea, semaforo gorriari kasurik egin gabe eta etenik gabeko marrak nahi adina bider zapalduz, nork esan behar dio ezer hari? Beharbada konparazio exajeratua da, baina kontuak kontu: ez al dago besteren kodigotik at bizitzerik? Zergatik onartu behar ezer? Zergatik galdu behar izakiaren askatasun primitiboa? Zergatik egin kasu, zeren izenean, inori, ezeri?

Harro nago, bai, ez dut damurik, nire bizimodua nahasia izan da eta nahasia da, baina halaxe behar zuen, halaxe behar du. Norberak nahi duena egin behar du eta halaxe egiten dugu denok, ezinezkoa da bestela jokatzeko. Halaxe behar du, bai, eta halaxe da. Ez diezazkiogun geuk ezar arauak eta mugak geure buruari; nahi izan dezagun benetan nahi duguna, amore eman gabe, ahal dugunera iritsi arte jotzeko beldurrik gabe. Ezin digu inork errieta txikienik ere egin, ez baitago, inorentzat, haustea zilegi ez den araurik zein mugarik. Berez dena libre baita.

Nola azaldu hau ordea inori? Ba al dago ideia hauek inori azaltzerik? Nire bizimodu petralaren zuriaketa ariketa hau ameti al lezake inork? Eta, bestalde, zergatik edo zertarako zuriaketa behar dut neure burua? Noren aurrean? Zertarako idatzi ditut lerro nahasi eta oker hauek? Zer da benetan kontzientzia?